

Administrazioa euskalduntzea eskatu du Ezker Abertzaleak

Ezker Abertzaleak ez du baztertu heldu den urteko aurrekontuen gainean Lakuarekin akordio bat hitzartzea, baina hori lortzeko oraindik bidea egiteke dagoela erakutsi zuten atzo talde abertzaleko ordezkariak. irakaskuntza, euskara eta kultura arloetako beren eskaerak zein diren azaldu zuten Gasteizko Legebiltzarrean.

GASTEIZ. Ezker Abertzalea taldeak agerraldia egin zuen atzo Gasteizko Legebiltzarrean, heldu den urteko aurrekontuei begira, kultura, euskara eta irakaskuntza arloetan beren eskaerak zein diren azaltzeko. Alde horretatik, euskarari dagokionez, «Administrazioa erabat euskalduntzeko» galdegin zuten talde independentistako ordezkariak, «25 urte geroago, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako administrazio bulegoetan euskaraz komunikatzeko mugak baitaude oraindik».

Hiru esparru nabarmendu zituzten eledun abertzaleek; «Osakidetza, Justizia eta Ertzaintza», eta hiru horietan «ahalegin berezia» egin behar dela adierazi zuten.

Itziar Basterrikak, Karmele Berasategik eta Ane Auzmendik egin zuten agerraldia, eta arlo horren gainean, «enpresetan eta erakundeetan euskara planak sustatzea», «euskaltegientzat diru-laguntzak gehitzea», eta «teknologia berriak euskaraz egoteko baliabideak jartzea» aldarrikatu zuten aurrekontuei beren babesa emateko. Euskal prentsa bultzatzeko ere galdegin zuten, eta sektore horretako eragileek Lakuari egindako aldarrikapenekin bat egin zuten.

Kultura arloan, Ezker Abertzaleak «euskaraz egiten den kultur sormena suspertzeko, Kirol Legea garatzeko, euskal selekzioei bultzada emateko, eta Euskal Liburutegi Nazionala sortzeko» eskatu zuen.

Horrekin batera, beharrezkotzat jo du «kultur ondare historikoaren behatokia» sortzea.

Irakaskuntzaren gainean, besteak beste, «Euskal Curriculum osatzeko eta martxan jartzeko diru-laguntzak eta baliabideak» aldarrikatu zituen. Unibertsitatean dauden gabeziei aurre egiteko, «baliabide ekonomikoak handitzea» ezinbestekotzat jotzen du talde abertzaleak, baita haur hezkuntzan 0-3 etapa hobetzeko ere.

Gainera, Legebiltzarreko osoko bilkurak iragan ostiralean onartutakoaren bidetik, «hizkuntza ereduak gainditzeko proiektuak suspertzeko» eskatu dio Lakuako Gobernuari.

Beste alde batetik, Aralarrek 313 zuzenketa aurkeztu dizkio aurrekontuen proiektuari, baina ez dio osoko zuzenketa aurkeztu. Izan ere, auzi horren gainean Aintzane Ezenarro legebiltzarkideak atzo azaldu zuen ez duela nahi «kontuak atzera botatzea edo aurrekontuen luzapena eragitea».